


BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

326n. zenbakia

2007 martia



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

ATZOKO KUBATAR BAT

KUBA'N, ERRI TA GIZAKI-ASKATZAILLE, MARTI, ABERTZALETASUN-LORE

Venezuela'n bizi nintzalarik, amerikar zenbait egoko ta iparreko lurralde txango-bidez ikustatzeko aukera azinobea izan nizuten.

Alderdi bikaiñak, gain-ordeka lautsu ta edapen aundiko, mendigune basotsuak, ikusmolde ta biziera txiro naiz aberats eta antziña-antziñako arri ezilkor yaulkiro landuak gegi irrikitsuz miretsi nituan.

Bertakotarren bizierak eta gureztat nekez ulertuzko zenbait kultura garatu ta ekitaldiren oiartzunak, antxe, nun-nai, nabarmen ageri dizkigute aztarna zoliak. Gaurko begiz oiek danak ikus-ala zer-pentsa ugari ematen ziguten.

Iraduz eta gaingiroki begiratutako guztiak oroimenean jaso ta atxikita iraun-azterik ez dago. Ezta sakonki ezaguterik ere, betegarriz-edo liburutara jo gabe beintzat. Au dala-ta alegindu nintzaizuten an-emengo berri-emaileen edesti, kondaira ta elezar idatziak eskuratzen. Tarteka, nola ez! lurralde jendetsu ta zabaldu aiek, joputzatik eta koloniatetik askatzen su-ta-gar jo zigutenean ekintza ta egitzuren txalogarriak ezagutuz. Izan ere, erri zar aiei, a ze nolako sarraskiak gaiñeratu zitzaizkien, aldiaren joanean, itsas-anditiko lurraldetatik irtendako jende zurien kariaz. Ta len-lengo askatasun batera, askatasun berri batera itzultzeko asmoz, makiña bat lan, gerra-zaldi zaratatsuz makiña bat burruka odoltsu egin bear izan zuten duintasunez bizi nairik, etorkizuna landuz, kolonizatzaileen kate zartailutsuak etenik. Askatasun-zaletasuna bizitzaren gaitsun eta doairik ederrenetakoa bai dugu gizakiok, eta betikoa.

Ta gaur, askatasun-zaleen arteko bat dakartzuet idazgai, neretzat beintzat abertzalerik miragarrienetakoa, askatzaillearen arteko ezpiritu goren baten jarraibidea: MARTI kubarrenarena, gizakien otseintzan bere gizon-fedea oi ez bezela jarri zigurarena.

Martí'ren bizitzaldian.— Kuba'n jaiorik dugu José Martí, bertako uriburuan, 1853'garren urtean, ilbeltzak 28'an. Gazterik, amaseiren bat urtekin asi zitzaigun lanean "Aberri jareia" zeritzan izaparringia sortuz, paperezko ta tintazko egiazko izkilluak, zinki. Erbeste luze-luzea ezagutu zigun, etengabe Europa'tik Ameriketa'rako baztarrik baztar bidaiaturik, ez noski besoak antxumatuta egonaz, bizimodu latzaz bere buru, gorputz eta gogo-almenak tai-gabe jantzi ta landuz abrusteko baizik.

Politikazko lan idatziaren aunditasunaz batera dakar olerkariarena (matxinadaren erdi-erdian dakusgu "olerkia" deritzan lergaillurik xotillena erabiltzen) eta pentzalari betearena, askatasunaren oiñarri egiñik giza-duintasunarekiko begirapena.

Oarterazi bear dugu eta pozik ere, Mendibe zeritzan euskaldun itzalgarri ta maixu baten babespean ikasi zituala oiñarrik joera guztiak.

1895'go maiatzaren 19'an, Kuba bertako guda-ekintza batean, etsai-berunbillez jota akitu zitzaigun Martí ereillea-

ren, on eta mistikuaren bizitza. Gazte oraindik, askatzaille geienak bezela.

Martí'ren aunditasuna.— Neretzat ba'da zerbait bear-bearezkoa bizitzan: kemenen, naiz-eta batzutan auleriz jantzita agertu. Eta kemenaren ikaskizun au da gizaundien bizitzak uzten diguten gauzarik onuragarriarena, egiaren aldekoa batez ere, sakonki sentitua eta umantakiro defendituarena, noski. Upera argitsu au da Martí'ren suzko ikasbidea. Martí etzan ideia uts izan, biotz aundiko errizale, kementsu ta egizale baizik. Etsairik izango ez duana, beti goraldia izango dana. Oraindik orain ildako erri-buruzagi artean zenbat izango dira beti goretziak izango diranak, etsairik izango ez dutenak, madarikatuztat joko ez ditugunak?

Benetako erri-askatzaille izan zan Martí, erritiko apostolua, asmo ta erabaki baten martiria, gizaundia, profeten garrezko mintzoz itzezin ziguna.

Justiziaren aldeze.— Martí, españiar kolonialismua zapaltzera jo zuanez, injustiziaren aurka burrukatu zan. Aren asarrebetearen lenengo astiñaldia Kuba'n berberean artu zan. Eta olerki garden-gardenez mamiturik utzi zigun irudi-menetik galduko etzigin ikusitako ua:

"Gori, lekaroen bezela, irten zuan osertzetik eguzkiak, eta eguzki arek gorputzil bat argitan jarri zuan. Norena-ta, zuaitz batetik zintzilik urkatutako jopu batena. Aur batek ikusi zuan Eta aur arek, negar egiten duten aiengatik, amorruruz eta griñaz dardar egin zuan. Eta sakaildutako gizajo aren oiñetan, basatikeri ua bere bizitzaz garbitzea zin egin zuan".

Orra olerkaria! Egiatzki esan oi da olerkari gaberik ez dala ezagun izan erri-askatasunik.

Bere aragian sufritutakoa asko izanarren, etzan geiena sufritu-azi egin zuana, erriko gazte ta ez-gazteai españiar agintzaille ankerrak egiten zizkieten torturaketak baizik.

Martí eta euskaldunok.— Martí'k, abertzaleatasun-atsoez mozkor, odoletan bustitako bere idaz-lumaz, tiranua zigorkatuaz, erabat zapaldu nai izan zuan ameskerrizko mundu gorrotagarri ua. Eta bere biziarekin salaketa au utzi zuan: "justizi ta askatasunera eskubide osoa izanik Erria zapaltzen duan Estadu edo jaurbideak ez du duintasunik agertzen".

Euskaldun orregatik maite dugu Martí: erri ta askatasun-goiburuen aurka zetozenak jorrazten buru-biotzez jardun zualako eta gure biotzak erritmu berberean tik-takatzen diralako.

* * *

Zoritxarrez, gaur Kuba oso saiaturik dabil Martí'k ildo-tutako goiburu-bidetik. Tokitan gelditzen dira, alajaña!, arek ilduraz ta ekiñez bere, oraindik askatu gabeko aberriarentzat opa zituan oiñarrik giza-onbideak.

Egaña'tar Gotzon

11.- EDESTIA: ABERTZALEAK BIZI-BIZI

Foru edo lege zarren galtzeak ekarri ebazan negarrak gizon aundi bat sortu eben: Arana'tar Sabin.

Ospetsua da Larrazabal baserriko berbaldia (Begoña'n). Or argi agertu eban Sabin'ek gure erriaren egoera larria. Bera zan abertzale bakarra. Beste alderdi guztietakoak españatarrak ziran.

Egoera larri orretara eroan eban erria foruak edo lege zarrak galtzeak eta orregaitik foruen bidea alde batera itzi eta erriaren nortasuna ta askatasuna oiukatu bear ziran.

Sabin'ek lan arrigarria egin eban: Berbaldiak, aldizkariak (euskeraz naiz erderaz)... Bat debekatzen eutsoenean, beste bat ateraten eban. Ekin eta ekin.

Eta euskalerrriak barru-barruan eukan egarri bizi ori eta urte gitxiren barruan argi agertu eban. Ugaria izan zan Sabin'ek lortu eban frutua.

Sabin sendiz karlostarra zan. Orduan ori zan izan be euskaldunen alde egoan alderdi bakarra. Baiña Luis bere anaiak ikusi eban bide barri ori berak baiño lenago.

Etxean ez eban euskerarik ikasi. Euskaldun barria dogu. Bartzelona'n ikasten egoala ikasi eban gure izkuntza eta zelako sakontasunera eldu be izkuntzaren azterketan.

Bere aldikoa zan Azkue (Resurrección Maria) eta bien artean lortu eben euskerea arau-bidera sartzea. Euskera idatzian ortografia Sabin'ena dogu. Jokabide oso zurra: "Abots bakoitxarentzat ikur bat". Geroago, geure aldi, kendu ziran 'r sendoaren gangarra eta l'ren gaiñeko marrea, irarkolako lana errezteko, baiña geur ez dago irarkoletan arazorik.

Aboskeri edo fonetismoen bidean, joko ezbaridiña eukan biak, esterako. Azkue'k "alabca" "etxea" eta Sabin'ek "Alabia", "etxia". Asko dira olako fonetismoak, eta onetan Azkue'ren bidea artu gendun. Guk gaur idazten dogun euskerea Azkue'renaren antzekoa da.

Abertzaletasuna bizi-bizi eta ugari agertu ziran lurralde guztietan. Abertzaleen, artean Agirre'tar Joseba Andoni gure lenengo lendakaria: Zelako eragiña Euskalerrriko Udal guztietan, Naparroa be barru zala! Lortu zan lenengo araudia Madrid'eko korteetan onartua izatea, baiña laster etorri zan dana zapuztuta izteko, 36'ko guda negargarria. Zori txarrez, pozak gure artean gitxi irauten dau!

OLAZAR'tar Martin'ek

AFRIKA: 51.- KAMERUN

Lur-garri edo ekuadoraren iparrean dago eta era guztietako baso ta zelaiak daukaz. Kamerun mendiak 4.000 metrokoak dira eta itxas-aldea errea da, baiña iparrerantza baso baltza edo oiana dago.

Doiztarren menpeko izan zan 1884-1916 urteetan. Gero Frantze'rena ta Algländerriarena. 1961n. urtean biurtu zan Erkal Alkartu edo errepublika Federal.

Karaoa, liñoa eta zura saltzen dauz Europa'ra. Iparraldean arantzaleak dira.

Eskuz batzen dabe kasiterita meatza estafiña egiteko. Erretxiña emoten daben zugatzak be ba-dagoz. Soloetan artaxikia, sorgoa ta maltea batzen dira antxiña lez. Platanoa ta kafea be bai.

Orain lurrak saltzen jakez baserriak egiteko eta abereak zaintzen dabez.

Guda nagusiaren ostein gertu egozan buru-jabetza osoa lortzeko eta 1947n. urtean Commobealt'en barruan, askatasuna lortu eben.

Bere neurriak aitzu barik, Afrika'ko laterririk aberatsena da, batez be diamante eta metal ederrekaitik eta kakaoaren ugaritasunagaitik.

Ikastetxe Nagusia ta eskolea ondo eratuta daukez.

OLAZAR'tar Martin'ek

OTSOAK EUSKALERRIAN (1650)

Emeretzigarren gizaldiaren erdirantza euskaldunen biziera solo ta abereen lanetik sortzen zan.

Egia esan, emengo biztanledia ez zan urria, baiña inguruko izadia menperatu bagerik egoan eta mendi-muiño asko egozan landu bagerik.

Basoa, itxasoa eta mendi-muiñoak bildurraren eta kondairen (mitoen) tokiak ziran.

Eta aberedunen artean estutasun aundia egoan basapiztiak ugari egozalako eta georago ta geiago egiten ebezelako triskantzak etxeko abereengan.

Esaterako 1572n. urtean Bergara'n artz eta otso asko ebillan eta orregaitik agindu zan udalaren agiri baten agertzen dana: otsoak ildako abereak ez dirala jan bear.

1648n. urtean Oñati'n Urtaza'tar Asensio'k diñoanez, "mendietan eta basoetan basapizti asko egoan: artzak, basurdeak, otsoak, basakatuak (tigres) eta ontzak eta oneik kalte aundia egiten dabe abereengan. Egia da asko dirala eizatuak, baiña ez guztiak, euren abiak atxaren zuloetan, atx zorrotzetan eta amiltegi aundietan egiten dabezelako".

Naparroa'ko Korteak 1652n. urtean otsoen eiztariai sariak emoteko bideak artu ebezan eta aberedun guztiak emon bear eben orretarako dirua. Sei duket ordaintzen jakon otso bat eizatzen ebanari eta duket bi otso-kumea zanean.

Amar urte geroago lege ori aldatu egin zan eta sariak txikiagotu, baiña saria ordaintzeko uri aundietan arduradunak ipiñi ziran, orrelan Iruña'ra joan-bearrik ez eukiteko.

1655n. urtean 110 sari emon ziran eizatutako otsoakaitik.

1817n. urtean aurrera jarraitzen dabe sariak eta eizatzekak. Urte orretan 100 otso eizatu diran.

Auñamendi'n egoan basapiztirik geien eta inguruan asko ziran otso-eiztariak, baiña uriartean otso bat baiño geiago eizatzen eben, esaterako Eibar'en 1708n. urtean iru eizatu ebezan.

Erriak emonda, sarien gaiñera "otsobilkoak" be artzen ebezan eiztariak: Otso-eiztaria otso-narruz jazten zan eta etxetrik etxe joaten zan otsoak egindako kalteak abestuz eta beretzat janariak artzen.

Otsoa, azalaria edo lukia eta artza sakon sartu ziran euskaldunen buruetara: Otsoa gaiztoa da, lukia maltzurra eta oillategietara sartzen zalea, eta artza indartsua ta ankerra. Euskalerrian "Bildur Gabeko Jon (Juan sin Miedo)" deritxon ipuiña, Juanatzo'ren ipuin biurtu da.

Basapizti anker orrein ondoan eta gugandik urrago ikusi dogu ugari erbi igeslaria, baita kirikolatzak eta ogigaztea (comadreja), kata mixerrak, eta askonarrak be. Txitatxuentzat bildurgarriak ziran mirua ta gabillauak. Zelako burrukak ikusi doguzan miruaren eta oillo lokearen artean, aurretiaz oillo lokeak garrazi bategaz txitak sasi-artera sartu ondoren! (Ik. "De Tubal a Aitor" Iñaki Bazan'en liburua, 550n. orrialdetik aurrera).

OLAZAR'tar Martin'ek euskeratu eta osotua

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

*EDUN ADITZ LAGUNZAILLEAREN IRAGANALDIA (I)

ZER aldizkarian atara zan gure azkenengo lanean alegindu giñan probatzen oraiñaldiko **edun*-en *gaituzu* adizkia **gaitza-u-zu*-tik etorri dala. Era berean, iraganaldikoak onela sortu zirala diñogu:

<i>nintzan</i>	+	<i>u</i>	+	<i>zu(k)</i>	>	<i>ninduzun</i>
<i>intzan</i>	+	<i>u</i>	+	<i>gu(k)</i>	>	<i>indugun</i>
<i>gintzan</i>	+	<i>u</i>	+	<i>zu(k)</i>	>	<i>ginduzun</i>
<i>zintzan</i>	+	<i>u</i>	+	<i>ni(k)</i>	>	<i>zindudan</i>
<i>gintzan</i>	+	<i>u</i>	+	<i>(t)e(k)</i>	>	<i>gindu(t)en</i>
<i>zintzan</i>	+	<i>u</i>	+	\emptyset	>	<i>zindu—n</i>

argi ta garbi ikusten dalarik *izan* aditz laguntzaillea conjugatzen dala bakarrik, beroneri **edun*-en *-u*- erroa, utsirik, loturik. Orduan, *ninduzun*, adibidez, erderara itzulirik, 'yo era habido por vos.' *izan* bear leuke. Oartu, mesedez, adibide oneek gertatzen dirala "sujeto pasivo", "paciente" edo "absoluto" lenengo ta bigarren pertsonak diranean. Irugarren pertsonari dagozkionean urrengo beste lan baten atarako dituguz aldaketa desberdiñak *izan* dituzelako.

Ipiñitako adibideak, euren sorreran, iru itz desbardin *izan* bear eben eta gero, denporaren eragiñez, itz bakar bat biurtu. Antzeko zoezer esaten genduan ZER-en 319 zenbakian, *izan* aditzaren iragana eskeifii gendunean: *neu(r) - (l)en - izan > ni-n-tzan*. Baita be, esaten genduan *nintza-(n) + (k)o(neri)* datiboduna > *nintza—(k)o + n* egin zala, aurreko *-n-* ori atzera jausiz. Oin be bardin, *nintza-(n) + u + zu(k) > nintza—u - zu + n*. Garbi ikusten da ordurako balio eban teoriak onerako be bardin balio dabela. Gure lanak aurreratu ala, obeto ikusiko da euskal aditz-jokoak edo "konjugaziñoak" sistema osoa, logikoa ta koerentea eskeintzen dabela.

Ipini dituguzan gauza guztiak ez dira gure smakizunak soil soilik. Biz. euskalkiko adarrak diran Zigoitia ta Salinasako izkeretan onako adizkiak erabiltzen dira: Zig. *niña-m-en* 'tu a mí' (*m < u*); Zig. *niña-b-en* 'él a mí' (*b < u*); *iña-u-dien* 'ellos a mí'; Zig. *ge-m-en*, Sal. *ge-b-en*, otros *ge-u-an* 'nos. a él'; Zig. *e-u-dien*, Sal. *e-u-den*, otros *e-u-en*, *e-b-en*, *e-u-deen* 'ellos a él' (*b > d*); Zig. *giña-u-zuzan* 'vos. a nos.'; Zig. *giña-u-diezan* 'ellos a nos.', etab. etab. Zigoitiako beste adizki eratorri batzuk: *niña-u-ke* 'él a mí'; *niña-u-kezu* 'vos. a mí'; *iña-u-ket* 'yo a ti'; *giña-u-kezak* 'tú a nos.'; *giña-ukezuz* 'vos. a nos.'; *ziña-u-keguz* 'nos. a vos.', etab. etab. Argi ta garbi azaltzen da adibide oneetan *niña(n)*, *giña(n)*, *ziña(n)* konjugatuak *izan*-en *nintza(n)*, *gintza(n)*, *zintza(n)*-etik datozela ta or azaltzen dan *-u-* ori **edun*-en erroa dala bape konjugatu barik.

V. Stempf alemaniarraren adibideetako bat zan, 1890-n urtean, "*nintukan* 'tu m'avais...' < *nintze(n) ukan ik* 'j'étais eu par toi'". *Izan* konjugatua ta Iparraldeko *ukan* konjugatu barik (*ukan = edun*). Urte batzuk badira bada, euskal aditzaren pasibotasuna ikusi zala.

Pierre D'Urte-k, 1712-n urtean, ipini zituzan oneelako adizki ugari: *bagin-tza-kharkete*, *bagin-da-kharkete*, *bagi-ña-kharkete*; *bazin-tza-kharkedan*, *bazin-da-kharkedan*, *bazi-ña-kharkedan*, aldaketa oneek gertatuz: *gin-tza...*>

gin-da... > gi-ña... ta zin-tza... > zin-da... > zi-ña... Idazle bi oneen adibideetan ondo be ondo nabari da *izan*-en adizkiak konjugatuak dirala ta aditz transitiboaren erroak, *-u-* ta *-khar-*, geitzen jakezala.

Sal. adizkiak *gin-tza-zun*, *zin-tza-gun*, *nin-tza-kan*, *in-tza-gun*, etab., **edun*-en transitiboak dira baiña bere *-u-* erroa galdu dabe ta *izan*-en *-tza-* gelditzen da bakarrik.

Eta, beste askotan lez, ona amen Bizkaieraren itanoko "arri bitxiak" bizirik dirauenak: *nin-tzu-an/nin-tzo-an*, *nin-tzo-nan* eta *gin-tzu-azan/gin-tzo-azan*, *gin-tzo-nazan*. Azkuek, pasiboaren aurka amorratu egon arren, bere iztegian ipini eban **gin-tza-u-azan*-etik datorrela *gin-tzo-azan* (*tza+u > tzo = izan-en -tza-* ta **edun*-en *-u-*). Onetxek dira euskera guztiko begi bistako iraganaldiko adizki jatorrenak eta zarrenak, Biz. itanoan ondo gordeak. Euskaltzaindiak, euskera baturako, onartu zituzten oneen kideak diran Iparraldeko *zu(k)an*, *zunan* legezkoak Oihartzabal euskaltzaiñak eskatuta, baiña ez zirudien euskaltzain bizkaitarrik egoanik Euskaltzaindian batua egin zanean, ez ebalako inork eskatu bizkaierako aitaturako adizki oneek euskera batuan zar zitezen, Iparraldekoen beste merezi ebenak, gutxienez. Euskaltzaindiak, sarritan lez, bizkaiera irainduz, beste ostikada bat emon eutsan euskalki oneri, edo begirune ustela deusalako, akats astuna dana, edo ezjakiñagaitik, eta onela izanda be, akats astuna. Orrelako joera okerrak, euskera osoari be kalte aundiak egiten deutsoez, bere sorrera ta aldaketak ikertu daiguzan ostopo gaiztoak diranez.

Villasante jaunak, Euskaltzaindiako "Euskera" aldizkarian, 39 zenb., 1994-3 urtean, eta 668 orr., gauza politik esaten zituzten "aditzaren batasunari" buruz: "...antzinako euskarara 'jo beharko zen, euskalkiak sortu baino lehenagokora..." baiña eziña zala "...ez dugulako 'ezagutzen euskalkiak jaino baino lehenagoko aditz joko..." eta beste arrazoi bat: "... 'ezagutzen dugunetik atera daiteke orduko aditz-sistema zaharkitua dagoela guretzat eta ez 'duela gaurkotzerik...". Orregaitik, aditz-jokoa "...gipuzkerarena hartu zen, ekarri bätzuk 'lapurteratik hartuz...". Adibidez, Lab., *dut* aukeratu zan eta ez Gip. *det*, baiña Biz., *da-u*, (*izan*-en *da* konjugatua eta **edun*-en *-u-* erroa konjugatu barik), jatorrena, zarrena ta lekuko garrantzitsuena euskera batu zarra aurkitzeko, beti lez, Biz. zalako, baztarturik gelditu zan. ¿Zer ekien edo zer aztertu eben aditz-joko batuaren aitamak? Begi bistan dagoz, ikusi gura dabarentzat, baita be aitatu doguzan *nintzoan*, *gintzoazan*, etab., zarrenak dirala, bizirik dirauela ta ez dala egia "zaharkituak" dagozanik eta ez dabe bear "gaurkotzerik", bizi bizirik, gaurkoak diralako. ¿Nora begira egon ziran? Ona emen, Biz. *nintzoan*, *nintzonan*, *gintzoazan*, *gintzonazan*, aditz-joko batu zarreko lekuko garrantzitsuenetarikoak, Biz. euskaldun geienak darabilenak, Euskaltzaindiko jakintsuak zakar-ontzira jaurtiak, iltzera kondnaturik, Laburdiko *zukan* eta *zunan* besteko meritua eukezenak batuan sartzeko.

15.- ETXAUN (PIERRE TOPET) (1786-1862)

Asieran Iparraldean idazlerik ospetsuenak aurkitu doguz: Etxepare, Leizarraga, Joanes Etxeberri, Axular, Aillande Oihenart. Gero Larramandi'ren eragiñaz egoaldera etorri jakun elertia.

Baiña aldi onetan be Etxaun Zubero'tarra daukagu, Barkoxe'n jaioa..

Zori txarrekoa izan zan bizitza osoan: Aitak etxetik kanpora bialdu eban bere antzik ez eukalako:

Ene persegitzien hatsarria zer zen,
Egia den bezala deiziet erranen;
Aita batek zian ogen hau bere haurraren
Haren egiterik gabe amak nündila sortü ükhen.
Ezpenintzeon aski jiten zeiztan primajen.

Bere emazteak giltzapetuta euki eban illebeta bitan eta gero sarritan espetxean lo egin bear izan eban, bere emaztea beste maitale bategaz ebillan artean, baiña Etxaun'ek espetxetik urten ebanean zizpagaz itxaron eutson etxera bidean maitaleari, eta ezjakiñean beste mutil gazte bat il eban.

Hogei eta bi urthik bethe egünin,
Emazte bat artu nin ene zorigaitzin:
Erraiten ahal beittüt zereki zeitan jin,
Ene ürkhä büllhürä gorderik altzopin.

Ez eukan etxera biurtzerik eta erromes asi zan Erroma'ra, Konpostela'r eta Loreto'ra.

Ona zelan diñozan berak erromes-aldiak:
Izan nüzü Jondane Jaka'n Erruma'n eta Loreta'n,
Bethi jente hunen medioz, biz'izan niz ene bidajitan.
Orai ere abiatzen beniz leheneko gisatan,
Jinko jauna,lagünt nezazü ene behar-ordietan.

Bizitza garratz eta iñoz odoltsu onek biurtu eban Etxaun olerkari trebe eta erromes-bidetatik biurtu zanean, etxean artu eben eta zizailluan, erromesen burusaren barruan sartuta emon eban azken arnasa. Barkoxe'n il zan eta antxe dago illobiratuta.

Bizitzako zori txarretan olerki onak egin ebazan eta azkenengo urteetan jai-aldirik geienetara deitzen eutsoen bertsoak egiteko.

Sentikorra zan eta sentipen orregaz apain jazten eban edozer.

Ez eban libururik argitaratu, baiña il zanean kuadernoetan itzi euskuzan bertso asko. Batzuk bere senideak erre egin ebezan, baiña ba-daukagu koplä pillo aundi bat, berak itzita.

Orixe'k Euskalerriko Verlänin dogula diño.

Eta Jon Etxaide'k: "Etxaun olerkari be izan gendun eta ez nolanaikoa".

Ona emen bere zatitxu bat. Zubero'ko euskerea irakurle askorentzat ulergatxa dalako, alboan erdereä ipiñiko dogu:

OFIZIALENÄK / cosas de oficiales
Oi laborari gaxua! / Pobre labrador!
Ihauk jaten dük artua; / Tú comes el pan de maiz.

Ogi eta ardu eraikitzen, auherren asetzekua: / Sacas pan y vino para alimentar al debil.

Halare hañ haie maite, un artzaiñak otsua / te quienen tanto como el pastor al lobo.

Artzaiña ba'da beztitzen, / Cuando el pastor se viste
Josler deia gomendatzen / Al sastre le encomiendan

Zaragollen gibel aldia oial obez egin dezen / que haga con mejor tela la parte trasera de los calzones.

Halare higätüren dila aitzinia beno lehen / Con todo se gastará antes que la delantera.

Dendarik berant agertzen / aparecen tarde los tenderos
Arratsen goizik ützültzen / vuelven pronto a la tarde.

Eta mundiaren jorrazten arte hartan abüsutzen / Entretanto escardando el mundo se entretienen.

Ezpeite jaten diena hüllantzeko irabazten / No ganan para comer ellos.

Egun ürüliak oro / Todos los días pasados.
Idorrian naiago / los prefieren en sequía.

Hanix lan agertü beharrez, hari oro txori-lepo; / Al aparecer mucho trabajo todo hilo es desigual.

Hallikatzen balin ba'duzu, zehian lau oropilo. / si le exasperas cuatro nudos en cada hilo.

Ehülia hari galto: / Si al tejedor le preguntas
Ukenik ere han franko, / aun teniendo abundante

Undar harien ebatsi naiz,oihalüzten zerratzeko / Que-riendo coger el resto de los hilos y dejar sin cerrar la tela.

Hariak gaxto zütiala fornisalari erraiteko / Para decir al proveedor que los hilos eran malos

Ez da gauza erreza nekasarien eta liñularien arazo oneik ondo ulertzea!

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKAL LEGE GIZONEN SENDI BAT, SERAPIO MUGICA ZUFIRIA

Joan dan urtean garrantzi aundiko liburua argitaratu dute euskal Lege zarrari buruz. Izena EUSKAL SENDIA, Serapio Mugica Zufiria". Danez gain euskal lege zarren azterketa egiten du. Serapio Mugikaren semea Jose Mugica bere aita bezala lege gizona ta idazlea. Liburu onen idazlea Jose Ignacio Mugica Brunet, Jose Mugikaren semea da.

1755garren urtetik asita gaur arte badaude legegizonak Mugikatarren artean.

Lege gizonen emaitza mardula sortzen da.

Jose Ignacio Brunet Lege gizonak, aspalditik asita gorde ditun paper zarrak irakurtzen ditunetik; Elburu bat ikusten du, ondo asmatutako elburuak agertzen, ez dirala jasotzen, baizik zer dioten legen iritziak garbi ta argi. Balió aundiko iritziak.

Bi Alberdi nagusiak nabaritzen dira ikerketa onetan: sortzen diran asmoak eta esan naien mezua.

Jose Ignacio Mugica Brunet delako legegizonak 50 urte egin ditu legegizon bezala eta orain bakarrik dauzka laguntzalleak bere lantokian.


Laguntzalle gazteak Gonzalo Arrue Portu bere seme ordezkoa eta Cristina ta Andoni Unanue anayak. Bere lantokiko betebearra gazteen eskuetan dago utzia. Orrela Jose ignacio Mugikak ordu asko ditu ikerketarako, legezarren paperak irakurtzeko. Bi idazki zarrak XV garren gizaldikoak ditu sendiaren liburutegian, Baita ere errege legezarrak 1569garren urtean argitaratuak. Bearrezkoa izan da Liburu oyeke irakurtzea argitaratu aurretik.

LIBURUAREN OÑARRIA sortzen dute. SERAPIO MUGICAK eskuz idatzitako orrialdeak eta gure sendiaren liburutegian ondo gordeta daude.

Gai bereziak alkartzen. Naiko lana ematen dute eta mesede ederra baita eskuratzen. Aitaren anayak zerikusi aundia dauka euskararen berpixtearekin. Gregorio Mugica 1917 garren urtean lenengo euskal jakintzaren idazkari bezala dabil lanean. Batzar onetan garai artako erregeak itzaldi nagusian, Alfonso XIII GARRENAK ala dio: "landu zuen izkuntza zarra, egitazko bitxia, zuen gurasoen eskutik jaso duzutena, zuen aldetik zaindu bearra ta zuen ondorengoen emaitza berexia bezala utzi bearra".

Serapio, Gregorio eta onen adiskideak Carmelo Echegarai, eta idazle askoren eskuetan asmo berdintsuak daude errotuak, naiz erderaz idatziak izan. Euskal sena berdintsua izaki.

Egokia dana bakarrik euskaldunarentzat merezi du egitea. Gorra, gogorra ta eozgorra izatea egoaren kalte bezala agertzen da Euskalerrian.



BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

LATXAGA

AMAMA (1º SARIA)

Mendigoizale *naiz*, eta etxerako itzulbidea artu *det*. Bilbaotik Donostiara dihoan berebilbidean *noa*, Durangalde ikusgarriaren inguruetan ibilli eta gero. Nire buruan igarotako egunaren ederra.

Mendigoizale izanik ere, tarteka goi menditara joan gabe, bee aldean ibiltzen *naiz* baserriz baserri. Gaurkoa, bi baselizen argazkiak ateratzerakoa izan *det*. Euskal Erriko baselizen argazkien bilduna osatzen ari *naiz*. Eta gaur lanbide orretan *nenbillela*, benetan gertaera unkiagarria, izan *dedana*.

Noan urrenkeran aipatzera gaurkoa. Goizetik Urkiolara abiatu *naiz*”. Durangotik irten eta Mañarian gora, Urkiolara noa San Antonioara”. Nire barruan, kanta zaar ori, bidean gora berebillan noalarik. Garaia batean, oiñez *zioa-zenak* esaten *bazuten* ere.

Urkiolan berebilla utzi *det*, eta andik bide zabal bat artuta, Asuntze izeneko tokian *nintzen* ordubeteren barruan. Pol-Pol deritzan iturri ondoan. Aoa busti eta ezkerraldera bidea artuta, Larranoko mendatera abiatu *naiz*.

Larranon nago eta Santa Barbararen baseliza aurrez aurre. Argazki saioa egin *det*. Eguna ederra eta argia, eta aurrean *dedan* ikuspegi zoragarria gozatzen ari *naiz*. Anboto eta Alluitz, ezker eskubi. Atzealdean Durango eta bere inguruak. Gero aurrean Saibigain, Eskubaratz, Mugarra eta Aramotz. Urrutiago, Arratia aldera, Gorbea. Eta nagoenetik, atzealdean, Oiz.

Egia esan, bada gure Aberri inguru auetan, ikuspegi ederrik aipatzeko.

Fedeari dagokionez ainbat eta ainbat baseliza! Inguru auetako nik leendik ateratako argazki batzuk aipatzearren.

Abadiñon: Bizente Deuna. Aingeruko Guarda. Kristo Santua. Eta beste ainbat: Antolin, Kristobal, Prudentzio, Martin. Eta Eufemia eta Apolonia Santak.

Berrizen: Andra Mari. Eta Santuenak: Antonio Abad, Fausto, Kristobal, Jorge, Mikel, Lorentzo, e.a.

Nolabait, zerrenda itxi egin bear, bestela lan osoa emango *liguke*. Eta gaurkoz bukatzeko, Iurretakoak oraingoan: Martin, Antonio, Fabian, Sebastian, Mames, Markos, Santiago. Eta Marina, Apolonia Santak. Eta Andra Mari Goiurikoa.

Gaur egun, oro ar, fedearen aldetik gure Erriak duen epeltasun negargarriari begira, miresgarria benetan gure aurrekoen joera. Eskola aundirik gabe, eta xume xume bizitzeko ainbeste lan egifnik, izan *zuten* denbora, baselizak eraikitzeko bere fede ona agertuz Jesukristorengan. Aien lekukotasunak itzuliko al *gaitu*, teologia aundirik gabe, ikazkiñaren sinismenera. Fedea ez bait da jakitunen esparru berezia. Aralar-eko baso eta zelaietan bein batean *nenbillelarik* artzain zaar batek auxe esan *zidan*, orain urte mordoxka bat: Ara gazte, elizan esaten *digutena* beteko bagenu, ez legoke, gerrarik, ez eta ere gafiñontzeko kalterik geure arremanetan. Artzain orrek, illunabarrean, lanak bukatu eta gero, txabola aurren belaunikaturik Errosario santua esaten *zuen* egunoro.

Gorrotok zer dakar?: Gerra ugari! Milloika illak. Eta maitasun ezak?: Mixeri gorrian ere bizi dira aora zer eramanik ez daukatelarik, asko eta asko! Zenbakiak dira emen lekuko: 6.300.000 ume iltzen omen *dira* urteko goseak jota. (Beraz, 5 segundo oro, ume bat iltze ari da goseak jota) Eta 180.000.000 ume derrigorrezko lanetan erabiltzen dituzte zenbait lekutan, mixeri gorrian bizitzeko. Oro ar ludi osoan, 854.000.000 pertsona bizi omen *dira*, gose larrian. Eta gutxi batzuen eskuetan ikaragarriko aberastasunak!

Urkiolan izanda Durangon *naiz* berriro.

Aurrena gertakizunei aurrea artuta, kokatu dezagun gorroago topo egingo *dedan* baserri inguru.

Baserria, euskaldunon egoitzen buru. Baserria giza eskubideen oiñari izan bait da, gure Aberrian. Euskal gizartearen jatorrizko antolaketa.

Baserria eta onekin auzoa: Oiñari sendoko erakundeak.

Erri Udala: Biztanle guztiak elkarren pareko, eta esku-bide berdiñez. Arazoak konpondu eta asmo berriak artu, denen onerako.

Eta bi orien bitartez, Batzar Nagusia. Gerediagako Batzarra zen Durangoko Merinaldeari zegokiona. Eta orrekin Gernikako eta Abellanedakoak, Bizkaian Euskal Foruen bitarteko antolaketa. Eta orrela iraun *zuten* 1876gn. urteraiño, Foruak kendu zituzten arte, alegia.

Baserria oiñari-oiñarrian: Bizi leku, irabazpide eta ondoezen ondolik baita ere amets kabi. Ain garrantzitsua izan bait da baserria! Gaur euskaldunok dauzkagun abizen asko eta asko, baserrien izenetik artuak *dira*.

Durangalde onetako mendi bidetan zear, baserrietako batera urbiltzen ari *naiz*. Ate aurrean amona bat eserita *dago*, norbaiteren zain antzean. Billoba omen *du* etortzekoa. Iri buruan bizi da. Eta opor alditxoan amonaren ondoan igarotzeko asmotan dator.

Aspaldi izan gabea da.

Egun argia dagoela esan *degu*. Gure amonak ordea, Anbotorantz begira, laiño antzeko beztasunak ikusten *ditu*, bere barrua ez dago gaurkotasunean. Eta gafiñera bere irudipenez trumoi otsaren antzekoa artzen du...

Eta 1937gn. urtean kokatuta dago bere burua. Durango eta inguruak, Italia eta Alemaniako gudarosteak, frankisten aginduz, leerkariak botatzen ari *dira*. Ikaragarria gertaera! Gure amonak semea galdu *zuen* eguna. Eta bere seme ura, gaur datorkion billobaren aita *zen*. Eta aita orrekin, beste 336tik gora illak. Santa Maria parroikia meza ematen ari zirela eta Jesuiten egoitza, leerkariak bete betean jo *zituzten*, eta goitik beera eraikuntzak eginik, azpian arrapatutako asko il *ziren*. Beste 300 bat etxe ere kaltetuak gertatu ziren. Eta orien artean Santa Susana eta San Franzisko Komentuak.

Ni une onetantxe, amona dagoen baserri ondora iritxia *naizelarik*, gure amon ori bere baitatik atera *det*.

– Egun on amona.

– Ni ez *naz* amona. Ni amama *naz*.

Zuok giputxok, zuen euskerarekin ere, batua dela eta, Bizkaiko jabe ere egin nai al *dozue*?

– Barka *ezaidazu*, amama. Maitasun osoz esan bait *dizut*, amona, nirea ere gogoan *dedalarik*.

– **Ondo da, gazte.**

Zer dala eta zabilta inguru auetan?

– Baselizen argazki bilduma ari *naiz* osatzen, eta gaurko saioa, Durangalde onetan egiten ari *naiz*.

– Bada, ni ementxe zain. Billoba datorkit opor aldia ementxe bere aitaren jaiotetxean igarotzera, eta, bera ikusteko eta besarkatzeko irrikiturik nago. Aspaldi ikusi gabea bait *dot*. Nik semea eta berak aita galdu *eban*, frankisten eragiginez Italiako egazkiñak Durangalde guzti au leerkariez, josi *eben* egunean. 1937ko Epaillaren 31 *zan*. Senar emazteak baxotxa beren bearrera urten *ziran*, goizetik, eta eguerdi aldera erraiña bakarrik itzuli *zan*. Ondorengo orduetan, ez *genduan* berririk izan.

– Otordua iritxi, eta nire semearen arrastorik ez. Orrela joan *jakun* arratsalde osoa. Gau ikaragarria gero eta txarragoa igaro *genduana*. Urrengo goizean nire umearen arrastorik ez, eta gaur arte. Ez *genduan* gorpurik ere topatu.

– Ainbeste orrelako, amama! Gogorra izan *zen*. Nire aita, gerra asi berri artan, baitu egin *zuten*. Eta gero esan *zigunez*, “sótano de la muerte” izeneko batean eduki *zuten*. An sartutakorik ez bait *zen* bizirik ateratzen. Ordu txikitari, bee barrua ikaragarri ura bete aala, gizonak atera, eta illerriko orma aurrean jarrita, tiroz iltzen *zituzten*. Gure aita ozta-ozta atera *zen* bizirik. Baitu *zituzten* lagun baten emazteak, bere aizparen bitartez, edo, militar batekin itz egiteko aukera izan omen *zuen*, esanez, ez *zio-tela* iñori kalterik egin, eta baitu zituzten gau artan, soziedade edo txoko batean omen *zeuden*, gerra asi berri artan. Batzuk alde egin, beste batzuk zer egin? Eta azken au erabakitzen, orrela bildurik zeudela, norbaitek salatu, *zituen* esanez, “rojo-separatista” batzuk batzarra *zutela*. Ura izen omen *zen* leporatu *zieten* “delitu” guztia

– Ona bi gertakari, eta ainbat eta ainbat gertatu zirenekoen ispillu. Benetan gogor jo zuen gudaren enbatak Durango alde txoko maitagarri au. Andik gutxira Gernika su bizitan leerkariek jota!!!... Eta Lemonako sarraskia, ikaragarria!!!... Iru aldiz, artu, eta galdu... .

– Amana, gero arte. Gerediako landa aldera noa. Eta arratsaldean emen bertatik igaroko *naiz*, zu agurtzera.

Gero Gerediagatik Salbador eta Klemente deunen baselizaren argazkia aterata itzuli egin *nintzen* leengo bidetik, eta amamarekin berriro topo egin *nuen*, eta andik gutxira billoba ere an agertu *zen*:

Billoba iritxi da.

– Egun on amona.

– Zu be bai! Ni ez *naz* amona! Ni amama *naz!* Zure amama!

– Barka *iezadazu*, amama. Badakizu, ogibidez irakasle naizen aldetik, ikastetxean batua erabiltzen *dugu*, eta orrela, bizkaieraz erraztasuna galdu egin *dut*, eta etxean amaren altzoan ikasi *nuena* zail egiten zait. Batuaz alfabetatu bait *nintzen*.

Eta etxean ama eta biok, ez naastearren gaztelera egiten *dugu*.

– Bai, baiña, billoba maite, zu saiatzen *bazara*, zuk etxean ama daukazu, ederto eta ederto bizkaieraz itz egingo *deutsuna*. Eta beste urten biderik ez *badozu* ikastetxean, gutxienez etxean, eta lagun artean, ¡eutsi! bizkaierari gure ama izkuntza, bizkaiera *da* eta. Ez da naikoa ama izkuntza euskera *dogula* esatea. Geiago zeaztu bear *da*. Eta gero esango *deutsut* zergatik.

– Orrela egingo *dut*, amama.

– “Egingo *dot*”, billoba, esan *egizu*. Pixkanaka-pixkanaka, emen *zagozen* bitartean bizkaieraz erraztasuna berreskuratu bear *dozu*.

– Zuk esan bezala, egingo *ditut* aalegin guztiak, emendik aurrera, amama.

– Bizkaieraz” egingo *dodaz*”. Billobatxu.

– Guk, billoba, maite, geure izkuntza ondo eta ondo ikasi *genduan*, eskolara asko joan barik. Eta urrengo maila, erdera, gaztelera, ikastea izan *zan*. Arabara joaten *gintzazan* udaldian, gari sorotan lan egitera, etxean janetik naikoa edukita be, erdera ikastearren.

Gure Bizkaiko amamak, bere garaiko euskaldun base-rritar askok bezala, ez *zuen* denbora luzeko aukera aundirik izan eskolan ikasteko, ikasitako pixka ordea, ondo ikasi *zuen*. Irakurtzen batez ere. Eta amama irakurtzen oso saiatua izana da, eta kultura on baten jabe da. Eta orrela esango *dio* billobari:

– Billoba, zuk bai al dakizu ama izkuntzak *dauan* eragiña, geure burmuñean?

– Ez amama.

Psikiatra eta psikologo jakintsuek *diñotenez*, gure burmuñak ez ei *dau* leku berean artzen, nolabait esateko, ama izkuntza eta gaiñontzekoak.

Emen adibide batzuk, nik irakurritakoak:

Egunkari batean. “Hacia el descubrimiento de la” caja negra “del pensamiento” izenburuaz argitaratutako idazkitik jasotakoak, euskeraz esanda.

√ Catherine Vincent “Le Monde”. Ume jaio berriak laugarren egunetik aurrera ederki bereizten *dau* bere baitan ama izkuntza gaiñontzekoetatik”.

√ Eta bide ontatik egunkari berean: Laura Bosch, Psikologia irakasleak, Barcelona-ko Unibertsidadean, onela *diño*” 56 umeren inguruan egindako ikerketaz esan *dai-kegu*, umeak leenengo egunetik bi izkuntza entzuten *badauz* egunoro, 4 edo 5 illabeteren barruan ederki bereizten ei *dau* baxotxaren ozentasuna

“Egiaren Billa “liburuxkatik. JM. Mokoroa eta X. Gorigolzarri elkarriketan. Auxe agertzen *dabe*.

Argentina-ko eritegi batean gaixo zaintzan egondako batek:

√ Irurogei urtetik gorako amama bat. Bost edo sei urteko *zala*, Frantzia-tik Argentina-ra eraman *eban*, bere izeko batek, umezurtz gelditu *zalako*. Bere frantses-kutsu guziak laster galdu *ebazan* umeak eta ez *eban* geiago sekula frantsesik egin bere denpora guztian, iltzeko bezpera arte. Azken ordu orietan asi *jaken* bat-batetan frantsesez itz egiten, gaxoa!! (Nonbait gordeta *eukan* bere txikitako izkuntza).

√ Bigarren bat. Aitaita bat berez euskalduna *zanik* ez ekian iñortxok auzoan. Elizatik alhenduta *ebillen*, gizajoa, beste asko lez; eta elizakoak artzera makurtu gura ez. Alako

batean, fraile euskaldun bat azaldu ei *zan*. Norbaiterekin euskeraz asi da... Eta aitonak azkar, eziñean bazan be, burua altxa. Frailea be asi *jako* berari be euskeraz... eta "otsolarruz jantzitako arditzarra" bezain gozaro jartzen da frailearen eskuetan, berak esandako guztira jarriko *dala*, esanez...

√ Eritegi batean. Urte pilla bat *ebazan* emakumetxo bat, bronkoneumoniak jota ei *egoan* ilzorlan. Alako batean iñok ez *ekian* izkuntza batean asi ei *zan* izketan. Gero jakin *zan* Indostania-n jazioa *zala*, baiña ondo *egoe-larik* izkuntza orretan tutik ez ei *ekian*. Ikerketak egin eta gero jakin ei *zan* emakumetxoa 4 urte izan *ebazan* bitartean Indian bizitu *zala*. Eta irurogei urte igarorik *ziran*.

- Ondoren esango *deutsudana* be jakingarria benetan, euskaldunontzat, billoba maite. Augustin Zubikarai, ondarrutar idazle oparotsuari irakurria:

√ "Jabier- en biozkada". (...) Jabier-ek Goan, portugalaren berbeta geientsu erabiltzen *eban*. Bizi gordiñeko biozkaden barri ziurrik ez *daukagu*. Ba dira bere zabalkundeko lan ikaragarrian orretarako astirik ez *eukala diñoenak*. Alaz eta azken biozkada euskeraz egin *ebanik* nok ukatu?

Ango iñok ulertzen ez *eban* berbetan amaitu *ebazala* bere azken orduak, esaten da. Eta gaztelania, luso izkuntza, inditarrak eta abar ezagutzen *ebazan*. Bere umetan amagandik ikasitako berbeta, ezbai barik, maitasunik zindoonean, *Jabier-en azken biozkada, ta sortzetik datorren izkuntzaren indarra*.

- Psikologo eta psikiaterek hiperestesia izenaz adierazten *dabez* azaldu *dodazan* gertaera oriek.

Eta oker bidea ez al da? Batua izenarekin goitik beera euskera molde bakarra ezarri, eta aldi berean izkuntza bizia, etxean ikasitako euskalkia zearo baztertzea? Billobatxo maite. Ain indartsu errian, bizi-bizirik *dagoan* gure bizkaiera?

- Eta Sabin Aranek esandakoari, Bizkaiairen negarra deituko *neuskio*.

Ondoren esango *deutsudaz* batzuk, billobatxo maite. Gogor-gogorrek, egi utsak. Onela *ziñoen* Sabin-ek, bere anai bizkaitarrei: "Izkuntzarik zaarrenetakoa *dogu*, zuen mendiak

baño aberatsagoa, zuen itsas ertzak baño indartsu eta goitiagoa, zuen soroak baño ederragoa, eta zuen gurasoen hizkuntza izanik, zuek bizkar eman *deutsazue*...

- Eta nik *diñotsut*, billoba maite: Euskeraren antziñatasunean dago geure bizkaiera be. Euskera nola edo nondik sortua *dogun* jakin guraz, zazpi milla urte atzera jota, galtzen *dogu* bere arrastoa. Beraz zazpi milla orietako antziñatasuna *dau* gutxienez. Eta or dago gure bizkaiera.

Orduan Sabin-ek esan *ebazanek zenbait bizkaitarren aurka ez dira arritzekoak*. Eta bide orretatik Sabin-en ikurra, "Jaungoikoa eta Lagi Zaarra" izan *zan*. Euskal nortasunari oso osoan eusteko. Eta euskal nortasunaren ezaugarririk andiena, euskera izan *dogu*, billoba maite. Eta guk Bizkaian, bizkaiera.

- Amama, nik ainbeste lan egin ikastetxean, eta ori esan *didanik* ez *dut* iñor izan.

- Billoba esan egizu, "ori esan *deustanik* ez *dot* iñor izan.

- Ondo da, amamatxu.

- Eta geure ama izkuntza, billoba maite, bizkaiera *dala, ez aaztu!*

- Esan *didazuna* jakiñik... edo, *deustasuna* jakiñik? (Bizkaieraz), amamatxu, gero eta geiago saiatuko *naz*, nire jatorrizko bizkaiera berreskuratzen.

- Orrelaxe, ederki, billobatxu maite.

Ni, amama eta billoba agurtu eta nire burutapenekin, uste baño azkarrago iritxi *naiz* etxera, aaztuko ez *dedan* egun ona, Durangaldean, Bizkaia maitean, igaro eta gero.

Egunak aurrera joan aala, billoba, gero eta geiago trebatu omen *zen*, berriro bizkaiera berreskuratzen, amaren altzoan ikasitako bizkaiera. Orixe esan *zidan* amamak, Bizkaiko amama zorrotz eta aldi berean gozoak. Urrutizkiñez deitu bait nion.

Batua dela eta, gipuzkoarrona errazagoa izan *da*. Azken batean, batua izenarekin, gipuzkera nagusitu bait *dute*. Eta artu *den* bidetik, bizkaieraren iraupena, koloka larrian ez ote *dago*...?

Joxemari Murua

KARMELE'RI

Leotik zear begira egonik
uso egazlariari
bertso ta erdi jarri gurarik
Karmeletxo maiteari.

Zeruetatik etorri ziñan
aingeruz inguraturik
Illunpean zan ludi kaskar au
bizitzerako deiturik.

Sagar, kerexa, madariondo
ziu ta igaliz antzu,
etorritz gero biortu ziran
emoteko kiriotsu.

Txori txikien txinta politik
etzan ba iñon entzuten.
zu ikusirik asi jakuzan
"gora Karmeletxo" abesten.

Oxin-ertzetan ugelaixoak
krau, krau, krau, krau diardue
pozaren pozez zuri agurka,
biotza dabe lertue.

Izan be gero olako zara,
ene zure ezpan eztiak,
ixil-ixilik bai-artzen dozuz
damotsudazan patxiak.

Goiko ortzian argiak argi,
keiñulari gauerdian,
eta zu izan ementxe gugaz
etxe ontako atadian.

Ezjakinean gaizki egin badot
oraingo onetan parkatu.
atsedentzera noakizu-ta
laztan maitekor bat artu.

Xenpelar'rek leiotik
zear Karmeletxo
jarriak

LAPURRAK EUSKALERRIAN (1807)

Napoleon'en aurka edo apur bat lenago izan zan "Konbention"en aurkako gudetan sortu ziran Euskalerrian lapurren taldeak eta bideetan agertzen ziran, bidez joiazanai dirua kentzeko, guda-osteko goseak eraginda.

Arrapau be egiten ebezan olako lapur oneik baiña eurak beti esaten eben goseak eraginda sartu zirala olako bizierara eta dirua eskuratzeko bide bakarra zala.

Gipuzkoa'n San Adrian'en eta Gatzaga'n agertzen ziran geien, troki orreitan ibiltea gaitxa zalako eta inguruan iñor bizi ez zalako.

Gatzaga'n egoan "aita-ordearena" eritxon tokia. Aldatz aundia egoan an eta idiak artu bear izaten ebezan, ondo ordainduta, zaldi-burdiakaz igon al izateko. 1752n. urtean asi ziran bide barri bat egiten, baiña orduan be idien laguntza bear zan igoteko, aldatz aundia zalako, XX gizaldira arte.

Emen egiten ziran lapurretak, esaterako Borbon'dar Dukeari (VII Fernando'ren anaia) bost lapurrek urten eutsoen egun argitan. Berba euskeraz egiten eben, Tolosa'ko edo Erretereri'ko euskeraz. 1717n. urtean Erregearen korreoa ostu eben eta 1748n. ean Rems'ko Gotzaiñarena.

TXANDRUA:

Txandrua izan zan lapur ospetsu bat, baiña au Azkoitiarrak arrapau eben. Txandrua lekaide-etxe batera sartu zan lapurretan eta leikame guztiak lotu ebazan, ogean gaisorik egon bat izan ezik. Eta auxe, gaisoa, joan zan torreira ta kampaia jo ebazan Azkoiti'ko erritarrai dei egiteko. Etorri ziran laster Azkoitiarrak eta lotu ebezan lapurrak.

Beste lapurreta asko egin ebezan errietan be.

1802n. urtean Bizkai'ko Aldun Nagusiri ostu eutsoen gipuzkoar bik, baiña biak baitu ebezan.

Bizkaia'n lapurreta asko egiten zan orduan: Uribe'n, Arratia'n, Durangoaldea'n eta geiago Enkarterrian.

PATAKON

Patakona izan zan lapur ospetsu bat, baiña biotz oneko lapurra, guztiak bardiñak izatea nai eban eta aberatsai ostu eta txiroai emon izaten zan onen zeregiña.

Patakona gaur be ez dago aitzuta Bizkargi-inguruan, Unbe'n edo Arratia'n. Ubide'n be ezagutu neban Patakona esaten eutsoen Matias bat.

Manuel Antonio Madariaga zan Patakona'n izena eta 1796n. urtean Galdakao'n jaioa zan. Larrabetzu'n azia, errementarien etxekoa, bederatzita neba-arreben artean nagusia eta sei seme-alabaren aita. Irakurten eta idazten be ba-ekian. Bere osaba bat be lapurtzat zigortua izan zan, baiña gero mekelete egin eben. Baiña abadeai lapurretak egiten asi zan eta ortxe galdu eban dana: Lezama'ko ta Derio'ko abadeai ostu eutsen, azkenengo au zauritu be egin eban. Fika'ko sakristauari be egin eutson lapurretea.

Gero erregearen taldeetan jokatu eban lapurren aurka iru urtean eta 1823n. urtean parkatu eutsoen. Bere lagunak bizitza guztiko espexera sartu ebezan.

1825n. urtean barriro lapurretan arrapau eben eta zortzi urterako zigorra ezarri eutsoen. Irugarren urtean iges egin eban Bilbao'ko espexetik eta 1830n. urtera arte 18 lapurreta egin ebazan. Urte orretan baitu eta Balladolib'era eroan eben, gero Gomera'ra, eta 1839n. urtean aske itzi eben. 1848n. urtean barriro espexeratu eben eta Melilla'ra eroan. Emendik be iges egin eban eta Rif'eko jentek jopu edo esklabu lez saldu eben eta skatasuna irabazteko artzain lez lan egin bear izan eban.

Urte batzuk barri Afrika'n il zan gure Patakona.

Naparroan lapurrak eta mugalariak (Kontrabandistak) batera ebiltzazan, sarritan baserriko lana be egiten ebela.

Abadeai ostuten eutsen askotan, 1730n. urtean esaterako. Los Arkos inguruan Quintanilla ta Castañeda'ko eleizetan eta ermitetan egin ebezan lapurretak, baiña eleizetan ostuteak zigor aundiagoa eukalako, ez ziran sarritan sartzen.

1788n. urte-inguruan lapur bat il eben, baiña geienak zigor bagerik geratzen ziran.

Jeronimollarrak "Eskilatxe" (baserritarra, artzaiña, mugalaria, gudari eta etoia, 1792n. urtean il eben urkamendian eta eskuak eta burua berak lapurretan egiñeko errietara bialdu ebezan. Erakusteko.

1797n. urtean lapurreta ospetsua izan zan Aralar'en, baiña lapurrak aurktu ebezan eta iru urkatu.

Bardeetako lapurretak izan ziran ospetsuenak. Erdi-Aroan. 1666n. urtean il eben Jose Virto Koreilla'koa.

1824n. urtean lapurren aurka "sari-eiztariak" "cazarecompensas" ipiñi ebezan. Urte orretan Billanueba anaiak, Salazar-aldekoak, amar urterako zigortu ebezan.

Belate-aldatzean egoan lapurrik geien, oncin artean Lanz lapurrak, Zeñoz abizendun bost anai ziran, bat, Pedro, Espoz y Mina'gaz gudan ibilli zan frantzetarren aurka. Eta orrelan ondo ikasi ebazan bideak eta nortzuk izaten ziran ibiltariak eurai lapurretan egiteko. Arrapau ebezan eta eurentariko lau il ebezan eta beste bost amar urterako espexeratu. Ori jazota eungarren urtean be bertsoak abesten dautsez erriak.

Zer egin olakoen aurka?

Bizkai'ko batzarretan 200 errealeko saria, lapur bat arrapetan ebanari emotea erabagi zan-Mikeleteak be ardura ori artu eben. Ogei ziran orretarako ipiñiak, batzuk lapurrak izanak. Erri bakoitxean be taldeak ipiñi ziran lapurren aurka eta lapurrak Puerto Riko eta Pilipinetara eroaten be asi ziran.

1800n. urtean Erretereri'n arrapau eben Bartolome Agirre lapurra, Zeuta'ko espexetik eta Iruña'kotik iges egiña. Zazpi zuizatar lagun ebazala egiten eban bere lana baiña arrapau eben. Kosta jaken espexean eukitea. Bere lagunak irutan sartu ziran bera askatzeko et tiroka uxatu bear izaten ebezan.

Euskalerriko lapurren arazoagaz batera aztertu geinke mugalarien edo kontrabandisten arazoa, baiña gaurkoz nai-koa da.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA

2006N.URTEKO EKINTZAK

Adiskideok:

Urte guztietan lez, Batzar Nagusi onetan urtebarruan egin doguzan lanen barria emoten dogu.

1.- ILLEROKO BATZARRAK

Utsik egin barik bete dogu illeroko batzarra eta urterokoa egiteko zeregiña, Atutxa'tar Paul gure bazkide ta idazkariaren Batzar-Agirietan ikusi daiteken lez.

2.- IPUIN-SARIKETA:

Urte guztietan lez egin da, Bilbao'ko Udal-Batzaren diru-laguntzaz eta babesagaz eta oneik izan dira aurtengo sarituak:

1º SARIA: JOSEMARIA MURUA'K

2n. SARIA: PALMI MERINO'K

3n. SARIA: ASIER LEGARRETA'K

4n. SARIA: ZIORTZA ARRIEN'EK

5n. SARIA: ALBERTO NARBAIZA'K

3.- EUSKAL ASTEA:

Euskerearen astea be ospatu dogu zemendiaren 19n. egunetik 24n.era. Astelenean Legarreta'tar Asier'ek azaldu eban bertsogintza zelan irakatsi. Martitzenean Atutxa'tar Paul'ek egin eban bere lenengo ekiñaldia, Naparroa'ko erregeña izan zan Joana de Albrit'eri buruz. Eguastenean agiri au izenpetzen dauan Olazar'tar Martin'ek filosofia'ren edestia azaldu eban. Eguenean Uriarte'tar Ana'k Internet'eren ezkutuak azaldu ebazan eta barikuan Atutxa'tar Paul'ek bere gaiaren bigarren zatia iragarri eban.

4.- EGUTEGI-TAKOA:

Bizkai ko Forudun Aldundiaren laguntzari esker argitaratu dogu Jaunaren Deia edo Mensajero del

Corazón de Jesus'eko josulagunak alkar-lanean doguzala gure urteroko egutegi-takoa. 15.000 ale banatzen doguz, Durango'ko Liburu-Azokan asita, Bizkai'ko errietara eta banaka batzuk Gipuzkoa ta Araba'ra.

5.- INTERNET:

Gure lankideen liburuak mundu guztira zabaltzeko lan ederra egiten dogu Ana Uriarte ta bere lankideak, liburuak Internet'era sartuaz. Lan ederra Umandi'ren Gogo-Iztegia'gaz, baita Aita Santi Onaindia'ren lan guztiakaz, emen Amorebieta-Etxano'ko Udal-Batza lankide dogula eta Larrea'ko Karmeldarren biotz zabalari esker.

Sartu dira baita Latiegi'tar Bixente'ren liburuak, Eleiz-Edesti-Txorta lenengo dala.

Arlo onetan urrengo urterako gertakuntzak egiten diardugu eta liburu oneik sartuko doguz Internet'era: Latxaga'ren lan guztiak, agiri au izenpetzen dauan Olazar'tar Martin'enak, Kardaberaz Taldean argitaratu genduzan liburuak (esaterako Manuel Lekuona'ren lan guztiak eta Larrakoe'txea'k Arjentina'n emengo gudaren ostean euskerratu ebazan Shakespeare'ren antzerki guztiak. Oneik zortzi ale edo tomo dira). Emen Labayru'ren laguntza daukagu.

Kontuan artu bear da liburu bakoitxak emoten dauan lana aundia dala, dana dijitalizatu edo eskaneatu egin bear dalako, orriz-orri.

Bizkai'ko Foru-Aldundiaren diru-laguntzak emoten dau lan aundi au egiteko almena.

Gaiñera Ikastetxe Nagusietarako eta olakoetarako bearren diruan liburuen CD'ak emoten doguz.

6.- IRAKASKINTZA:

Urte guztietan lez, jarraitu dogu asieratik Alkarte onen elburua izan dan Euskerea irakastea. Ikasleak aspaldion ez dira gitxiagotu eta ez ugaritu be, nai geunken neurrian. 30 ikasle inguru daukaguz. Irakasleak betikoak zintzo jarraitzen dabe.

7.- "ZER" ALDIZKARIA:

Gure "ZER" aldizkaria illero agertu da eta asko poztuten gaitu lan onek, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra dalako.

Argitaratzeko ez daukagu arazo aundirik, baiña zabaltzeko eta saria eskuratzeko Bilbao'n be gatz egi-ten jaku kobratzaillea aurkitzea eta errietan ezin dogu kobrau eta gitxik ordaintzen dabe bbk'ko gure kon-tuan.

Eskerrak irarkolako lana Forodun Aldundiak ordaintzen dauskula.

8.- ETXEA:

Ba-daukaguz arazoak etxe zarra dalako dauka-guna, eta "derrameak" edo ordainkide-sariak aun-diak diralako, baiña al dogun artean aurrera egingo dogu.

Amaitzeko, eskerrak emon bear dautseguz Biz-kai'ko Foru-Aldundiari, Bilbao'ko Udal-Batzari, ira-garkia egokiro ordaintzen dauskun bbk'ri eta ez gitxiago idazleai eta lankide guztiai.

OLAZAR'tar Martin'ek



**"MENDIKO BASOAK ETA
BARRUTIAK EZ DOZUZ
ERREKO"**

Taosmoaren 67n. agindua

**ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO
LENAGOGOAK DIRA.
BASAMORTUAK ERRIEN
OSTEAN DATOZ; ZUGAZTIAK
GALTZEA GIZONENTZAK
ZIGORRA DA.**

Chateaubriand

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzarra • Asamblea anual

- 1.- Aurkezpena / Presentación (Olazar'tar Martin Lehendakariak).
- 2.- Urteko ekintzak / Actividades del año (Lehendakariak).
- 3.- Urteko Kontuak (Ciencias - Karmele Fernandez).
- 4.- Arduradun Barriak / Renovación de cargos.
- 5.- Eskariak eta itaunak / Ruegos y preguntas.

3.- KANADA

Ona emen erri aundi bat izanik, isillik eta apal bizi dan erria: Kanada.

Orregaitik da gitxi ezagutua, frankofonoen eta anglofonoen arteko arazoak alde batera itzi ezker.

Ameriketako laterririk zabalena da eta bere aberastasunik aundiena baso aundi ta zabalak dira. Ortik ateraten dabe etxegintzarako naiz ingigintzarako bear daben zura.

Baso aundi orrein toki otzetan ugari aurkituko doguz izaiak, urkiak eta pagoak. Munduan zurik geien dauan lurraldea da.

Basoetan piztiak eta abereak be ugari dagoz, batez be eizarako: Bisonteak, katazuriak, kastorak, ur-txakurrak, azagariak... Eta eiztariak pizti orrein okelea baiño naia-go izaten dabe narrua. Au aberasbide izaten da.

Ara urreratu ziran europatarrak laster konturatu ziran ango edertasunaz eta aberastasunez, batez be San

Lorentxo ibaiaren inguruko ibarretan eta ango zingiren alboetan.

Gaur baso asko kendu eta lur barriak egin dabez eta oneitan bedarra, garia eta lekadunak ateraten dira.

Sortaldean bizi diranak arrantzale onak dira. Guk ezaguna dogu andik urrean dagoan Terranoba, bale ta makallauaren lekua. Toki onetan dagoz euskaldun balezaleen labak izan ziranen ondakiñak eta Euskaldunen izena daron lur-muztur bat.

Erdi-aldean basoak eta bedardiak dagoz ugari eta azalgorri ziran gizakiak emen menperatzen ebezan bisonteak.

Gaur bedardiak ugari dagoz baiña ez bisonterik. Bedardiak eurak be gari-solo biurtzen doaz. Europa'ra saltzeko garia be artzen dabe.

Sartaldea menditsua da eta igaliak be ugari daukez. Ango erregin-sagarra ezaguna da mundu osoan.

Lur-azpian ikatza, arrorioa, eta askotariko burdinkiak dagoz. Olaintza egunerik egunera doa sartzen.


Kanada'n 16 milloi gizaki bizi dira, Frantze'tik edo Anglanderri'tik joandakoen ondorengoak.

Otawa dabe uriburua eta laterri alkartua dira, baiña ba-daukez buru-jabetzaren arloko eztabaidak. Batzuk laterri bi izatea nai dabe eta orretarako alegiñak egiten dabez auteskunde-bidez lortzeko, bein eta barriro. Frantzetarren aldekoak Kebek uriburu dala, askatasun osoa nai dabe, baiña autarkien bidez. Oneik ez dabe itz bat be entzun gura inglese, telebistan be ez.


Dana dala, ondo alkartzen dira euren ertzaiñak goratzeko (policia montada) edo izotz-gaiñean hockey'ra jokatzeko.

Euren arteko asarretxuak labur geratzen dira Kanada aundiaren aurrean.

OLAZAR'tar Martin'ek



Kastorea



Idi-konkorra

Kanada'ko pizti eta abereak.



ERRIOXA EUSKALERRIA DA


Errioxako euskal aztarnak billatzen asi giñan arkaitzetako monastegiak ezagutzen genituela.

1974 garren urtean argitaratu genuen euskaraz liburuxka bat **ERRIOXAKO SAN MILLAN EUSKAL ITURRI** izenarekin **ANTXEN** agertzen genituen euskerazko izen pillak. Antxen agertzen ziran euskal aztarna asko. Antxen agertzen ziran idatziak lenengo itzak euskaraz.

JUAN BAUTISTA MERINO URRUTIAK ARGITARATZEN DITU beste itz asko euskaraz; **EL VASCUENCE EN LA RIOJA** liburuan.

GONZALO DE BERCEO apaiz olerkariak amabigarren gizaldian erderaz idatzitako olerkietan itz asko euskeraz sartzen ditu:

ARDURA amairu aldiz,
ASMAR 80 aldiz
ZATICO 2 ALDIZ,
AINA 34 aldiz



Bigera'ko Esteban deuna.

ARLOTES 2 aldiz,
DON-BILDUR bein eta abar...

Lenengo arremanak Errioxako euskalzaleekin San Adrianen, Napparroan nintzala lortu nitun 1997 garren urtean.

Jose Luis Antoñanza Lopez Kalagorriko gazte batekin asi nintzan billerak egiten. Zortzi lagun bildu giñan; ba zuten euskal zaletasuna.


Antxen jakin genuen Logroñon euskalzale talde euskaldun bat sortu zala (6.10.2001) **LAMINITURRI IZENAREKIN**. Arduraduna **MARTIN MARTINEZ SAEZ DE JUBERA** agertzen zan. Biltokia bezala logroñoeko Unibersidadean zeukaten. Talde oneri **LAMINITURRI EMAN ZIOTEN IZENA**. **ERRIOXAKO ERRIXKA BATEAN**, Ojacastro delakoan, arkitzen dira, izen orekin. Bizpairu mendiko iturriak euskarazko ikasaldia zuzentzen zuten. 10 ikasle datorkiez **LAMINITURRI TALDETIK**.

BESTE izen aundiko ekinza berexi bat lortu dute euskal giroa sortzeko;

EUSKARAREN BIDEA 175 KILOMETRO OÑEZ, BERMEOTIK ERRIOXAKO SAN MILLAN'eraño **EUSKAL ITURRI**, euskaraz atsegiñez.

Laminiturri taldeakoak Jose Antonio Gonzalez Salazar Arabatar apai-zarekin arremanetan jarri nitun. Jose Antonio langille arrigarria da. Ba ditu zortzi liburu Arabako toponimia-rekin egiñak. Beti esan nion laguntzeko Errioxako euskalzaleen taldeari. Bizpairu ibillialde egin genitun alkartutaa; Ojacastro, Ezkaray, Ormazas delako mendikatean, Villanueva de Cameros. Emen euskal artzai baten izena zegoen aspaldi garaikoa. Camerosko lurraldeak euskal kutsu aundia daukate. Merezi du aipatzea San Esteban de Viguera, baita **IREGUAKO LURRALDEAK**; Dantza zarrak ikustera mais joan giñan; Anguano eta San Millanera.

Agertzen ari geran urratsetan daukagu ekintza berexi batzuen aitormena. Pixkanaka lortuko du, Errioxa'k Euskalerrria izatea.



LATXAGA

SCHOPENHAUER (1788-1860)

Dantzig'en jaio zan. Ama idazlea eban eta aita saleroslea.

Aitak Europa-barrura bialdu eban izkuntzak ikasteko eta orrelan bere antzera salerosle ona izateko. Berak ez eban nai bide ori eta ita il zanean filosofira sartu zan Gotinga'ko ikastetxe nagusian. Gero Berlin'era joan zan eta Fichte'ren jarraitzaile biurtu. Irakasle be izendatu eben, baiña ortik samintasunak baiño ez jakozan etorri. Alboan eta ordu beratan Hegel eban irakasle eta onek beraganatzen ebazan irakasleak.

Irakaskintza itzi eta liburuak idazten eta itzaldiak egiten jarraitu eban.

Idei-bide edo idealiskmuaren aurka agertu zan eta Hegel barritsu bat baiño ez zala esaten eban eta errazoi utsaren bide-tik joiala, aurrean daukaguzan gauzak alde batera itzita.

Kant'en fenomeno ta noumeno, agirikoa ta barrukoa, onartzen dauz oiñarri lez. Agiri dan mundua guk egiten dogu eta gu kendu ezkeru ez dago olako mundurik. Mundu ori zentzuen bidez eta intuiziñoz ezagutzen dogu, orretarako oiñarriak lau dirala: Gauzak joan doazela, abstrakziñoz edo kenketaz ezagutzen doguzela, matematika dala bide aldia eta tokia ezagutzeko eta egitea nai izatearen ondorena dala.

Ori dana fenomeno'ren mundua da, baiña noumeno'n ez dago aldirik ez tokirik, geure naipena baiño ez eta naipen ori bizigurea da, baltza ta itsua, errazoi-bakoa. Mundu okerra agertzen da or. Ezezkorra da.

Gizakiak zelan lortzen dau askatasuna? Estetikaren bidez, edertasunak poztu egiten gaitu eta ortik sortzen dira, Platon'ek esaten eban antzera, arketipo diran ideak. Oneik betikoak, aldatu-eziñiak eta toki naiz aldi bakoak dira. Eder-lanen artean onena eresa edo musikea dala diño.

Bizigurea kendu egin bear dala diño. Orduan norberaren burua il? Ez bizigureak nekeak kentzen dauz eta naimena osatu. Dana dala, "voluntas"en orde "noluntas" artu bear dala diño, inditarren antzera "nirbana" antzeko batera eltzeko. Orra eltzeko "asketika" da bidea.

Samiña da filosofo onen ezezkortsuna eta ondorenak eka-rriko dautsoz filosofiarri.

NIETZSCHE (1844-1900)

Auxe dogu filosoforik negargarrietariko bat eta beronen pentsabideak burua galtzera eroan eben

Ona emen bereizitasun batzuk: Jainkoa il da, geuk il dogu; ortik ezerezkerira goaz (nihilismo); goi-gizona edo "superhombre", aginpidea nai, kristiñautasuna gorroto ustelkeri guztiak dakazelako; beti bizitza barri batera edo "eterno retorno".

Saxonia'ko Röken'en jaio zan eta aita eleiz-artzaiña zan, baiña gazte zala il jakon. Etxean fedea bizi eben eta bera be artzain izatekotan egoan. Ikastetxe nagusira sartu zanean kendu jakozan burutasun orreik (Bonn'en): Teolojia ikasten asi eta itzi egin eban, gero Leipzig'en Schopenhauer irakurri eban eta pozik artu. Or asi zan kristiñautasuna gorrotatzen. Ikasi ebazan filosofoetan ezezkortasun ikaragarria aurkitu eban.

Wagner musikaliaren lagun be egin zan baiña onen barruan kristiñauen aldeko burutasunak aurkitun ebazalako, asarretu egin zan.

Gaisotu be egin zan baiña batez be jakitun guztiakandik urrindu zan 35 urtekoa zala. Gero idatzi egiten eban. Maite-

mindu be egin zan, baiña ondamedia etorri jakon eta len baiño txarrago gelditu.

Bere burua jainkotzak agertzen be asi zan eta azkenean burua galduta bizi izai zan urteetan. Kalean jausita egola jaso eben eta andik laster il zan.

Filosofia'ren edestian Jainkoa agertzen da, baiña ori guzur aundia da, diño, gu bakarrik gagoz, ez gara ezer, eta beste mundurik ez dago. Gaur dana len izan da eta barriro be izango, "eterno retorno", baiña gizadi barri baten "goi-gizona" agertuko da, balio barriakaz, ez ostera kristiñautasunaren onoiemenakaz, oneik jopuen, esklabuen, onoiemenak dira: apaltasuna, gaisoak eta txiroak goratzea... "Kristiñautasuna salatzzen dot, ustelkeri guztien iturria dalako; Jesus aundia izan zan baiña Eleizeak saldu egin dau bere izakerea".

Benetan negargarria!

COMTE (1798-1857)

Filosofoen burubide utsakaz aspertuta, Comte filosofi positibista batera sartzen da, aurreko gauzak kontuan artuta.

Txikitan katolikua izan zan baiña 14 urtekoa zala itzi eban bide ori, zientzi-zale biurtu zan eta zientzilariak errian agintari izatea eskatzen eban.

Positibismoa, aurrean daukaguzan benetako gauzak aztertzea eta ortik bizitzarako legeak ateratea da. Atzean dagozan gauzak, metafisika, ez dira ziurrak

Aurrerapenak gudan eta edestian iru aldi izan dauz: lenengo teolojikoak, bakoitxak ume-arogan eta gizadiak fetitxismoan, politeismoan, monoteismoan eta Jainkoaren ordezkioa dan erregea onartuta, gero dator aldi metafisikoa edo filosofoena, eta orain eldu da positibismoarena, benetako aldia.

Zientziak sei arlotan banatzen dauz: Matematika, Grezian asita; astronomia erdi-arogan batez be; fisika, kimika, biolojia ta soziolojia.

Erlejiñoak santu barriak bear dauz, ez gaur Eleizeak daukazan zeintzilari izan diranak baiño.

De Lubac'ek diño ateismorako bidea dala ori.

Dana dala, ortik ondorenak artu dabez batzuk; esaterako Renan'ek Biblia aztertzeko, Durkheim'ek gizartea ulertzeko eta Taine'k edestirako.

Emendik aurrera daukaguzan filosofoak aitatu daiguzan eta zerbait esan: Russell atomoak esaten dautsen pentsadi laburren-etatik asten da eta ortik ateraten dau dana. Akino'ko Toma'ek be ba daukaz gure aldi onetan lagun ezagunak, batez be Maritain eta Gilson. Martin Haidegger be or daukagu, baiña ezagunenak izate-zaleak edo eksistentzialistak dira, onein artean Sartre ta Kamus. Zentzunezko folosofi bat agertu euskun Balmes'ek, batez bere "Criterio" liburuagaz. Ez dogu aitzu bearko Alemania'ko folosofiak ain maite ebazan gure Unamuno eta bere ustez España'n lenengoa eta Alemania'n bostgarren filosofoa zan Ortega-Gasset.

HEIDEGGER (1899-1976)

Aita sakristau katolikoa izan zan eta semea abade izatea nai eban. Semea josulagunen artera sartu zan, baiña ez luzaroko, gero filosofia ta teolojia ikasi ebazan eta bere naiz gudara joan zan.

Fedea galdu eban baiña katoliku izatea itzi barik. Bultmann teologo ospetsuaren lagun izan zan.

Hitler'ek izendatu eban Ikastetxe Nagusiko erretore, baiña ez luzarorako, urtebete baiño ez, eta orretarako nazien alderdira sartu bear izan eban. Unibersidadean be diktadore antzera agertu zan eta gorrotoa artu eutsoen.

Guda amaitu zanean alboratu egin eben, nazien lagun izan zalako. 1951n. urtean asi zan barriro irakasten eta larogei urtera eldu zanean itzi eban irakastea.

Izate zale edo eksistentzialistean asierea da.

SARTE: (1905-1980)

Sendia protestantea zan baiña bera laster birtu zan jainko-bakoen artera.

Filosofia ikasi eta irakatsi eban. Bere idazlanik onena "Dana ta ez dana" edo "El ser y la nada" da (1943).

Gudan alemandarrak atxillotu eben eta konumisten alde jokatu eban.

Albert Camus'egaz batera, izate. zaleen buru da.

OLAZAR'tar Martin'ek

AFRIKA: 52.- Langintzara (Kamerun)

Langintzan dago Afrika'ren etorkizuna izadia etxeratzeko, Afrika inguruaren morroi izan ez daiten.

Europa ta Afrika alkartzeko area, langintzara sartzea da.

Orretarako meakiak merke daukez baiña argi-indarra karu.

Afrika'ren egoaldea langintzaren bidez alkartu da Europa'gaz. Frantze'tik datorren bauxitagaz sortzen dabe indarra.

Aluminio-lana egiten da asko eta lingoteetan eroaten dabe Europa'ra ta Ameriketara.

Laster kamerundarrak Afrika'n egindako sartaiñetan erreko dabez euren janariak.

Langintza Kamerun'en be diru-etorria da. Eguneroko lanak bere frutua emoten dau. Ortik sortzen da erri bat gazte biurtzeko bide egokia.

AFRIKA: 53.- Kongo

XV gizaldian eldu ziran portugaldarrak Zaire eritxan lurralde aretara eta gero itxasondoan inglesak, danemarkatarrak eta frantzetarrak ibilli dira.

Billatzaille bi ibilli ziran an, bata Stanlei inglesa eta bestea Saborgnan frantzetarra eta 1888n. urtean alkartu ziran ibai izugarriaren ondoan. Erri bi sortu ebezan: Leopoldobille eta Brazabille.

1945n. urtean lortu eben askatasuna Kongo'ko nekazari areik. Orain gazteak uriburura jo dabe.

110 m. gora andaparea egin dabe, indarra lortzeko eta Punta baltza munduko langintza-lekurik aundiena izan leiteke.

Kobrea, zinka, uranioa, baserita, urrea ta diamanteak ugari dagoz. Asmoak ikusgarriak dira baiña lenengo erria bat egitea da lortu bear dana.

AFRIKA: 54.- Tropiko-basoaren frutuak

Batera eldu ziran Kolon Ameriketara eta portugaldarrak Afrika'ko Tropiko'ra.

Lurralde ain aundia ikusita, arrituta geratu ziran: Ibai aundiak eta baso ondo jantziak!

Urrea ta marfilla billatzen asi ziran eta bertakoari kristalaren truke erosten eutseen. Katigu edo morroi-billa be asi ziran, gero saltzeko.

Baiña bildur ziran baso baltz arein barrura sartzen.

Oraintsu asi dira ango frutuak saltzeko erosten: Palma-orioa, kakauetea, kafea, platanoa ta kakaoa. Gero artoa ekarri eben Ameriketatik. Gaur munduko kakauaren 3/4 Ghana, Nikeria, Kongo, Kamerun eta Marfil-Itxasondo (Costa de Marfil)'tik dator.

Baserri txikietan artoa, igaleak, kakauetea ta mandiokea lortzen dira. Sudan'en idiak eta arroza saltzen dabez.

Zura da Afrika'ko basoen ondoren aundi bat. Kaoba, teka ta ebano dira entzutetsuak.

Meatzak ugari dagoz: Urrea, estaiñua, kobrea, beruna edo plomoa, zidarra, diamanteak, uranioa. Azkenengo au emen munduko geiena.

Iñok ikusi bako baso aundiak dagoz. Munduko aberastasunik aundiena.

OLAZAR'tar Martin'ek

11.- ERO ETA LANDER (Elesponto-Grezia)


Grezia'ko Elesponto'n gazte bi bizi ziran alkarragaz benetan maiteminduta. Itxas-besoaren bazter bietan.

Ero Benus'en eleiz-andereñoa eta neska oso ederra zan eta au nai eben emaztetzat Kupido'k eta Apolo'k.

Baiña Lander'eri be atsegin jakon eleiz-andereñoa. Eta egun baten azaldu eutsen bere maitemiña. Biak batera etorri ziran orretan.

Laster jakin eben neskearen gurasoak gazte bion asmoa eta ez eben ontzat artu maitasun ori, eta biai debekatu eutsen geiago alkar ikustea.

Baiña gazteak, euren jarraitzen eben: Gauez joaten jakon Lander eta alkartetzeko ezaugarri lez, argi bat ikusten zan Ero'k bere leioan ipiñita. Pozik joaten zan Lander itxas-besoaren beste aldetik, ezaugarri ori ikusten ebanean, ba-ekialako bere maitea antxe egoala itxaroten. Ordu-pare bat egoten ziran alkarragaz.



Baiña gau baten itxaso oso asarre egoan eta aize zakarrak uin aundiak jasoten ebazan. Uger eta uger joan zan Lander eta eldu zan beste

alderantz. Baiña leioko argia amatau egin zan eta mutilla galduta aurkitu zan itxaso aizetsuaren erdian.

Lander uger egiten ona zan lez, baiña ez ekian zuzen ala oker joian beste aldera, eta uñiak geroago ta aundiagoak ziran. Nekatzen asi zan ba, gure Lander eta sinistuta egoan gau aretan ez egoala beretzat urtenbide onik. Azkenean uin bateak azpiratu eta ito egin zan.

Urrengo goizean Ero'k, gau osoa zain alperrik itxaron-ondoren, arrituta ikusi eban uñiak gorpu bat ekarrela ondartzara. Joan zan ara eta, zori txarez, Lander'en gorpua zala ikusi eban.

Naigabeak nastau eban Ero errukarria eta Lander lagun maitea barik bizi nai ez ebalako, itxasora bota eban bere burua eta antxe ito zan bera be.

OLAZAR'tar Martin'ek

TOLOSA'KO JAKINTZA-BIZITZA

Euzko Edestian XV'gn. gizaldiaren bigarren erdian jazotako gertakizunek, gentza birrezarri ta Andia'k eragindako laginzaar-araubidea berregituratu zutenak, jakintza-alorrean beren arnariak ekarri bear zituzten.

Gizikastun argidotar Idiakenez'tar Alonso jaunaren jakitea onezkero aitatu degu, baiña XVI'gn, mendeko gizurena naguskasle Zaldibia izaki. Zaldibia, aitonen semeen gizeli edo leñu zaarrekoa, XVIII'gn. eunki bukaera alde-ara eratxi zuten Arramele'ko zeitxo edo enparantzaxoan gallurtegia zuna, aldiziti edo berrantz kirian lenen gipuzkoar edestilaria da. Bere eginkari nagusia.

"Kantauritar Gauzen Batuketa", Aldundia ardura aundiz argitaldu du, Arotzena'tar Pausta jaunaren zuzendari-tzape yayo ta jakintsuan.

Zaldibia, gerora Gorosabel izango danez, edestilari ta lagiztilari da aldi berean.

Lagizaar erriketa-eraentza sendotze-aldiari dagozkion "euzko erriketa-ustariaren oiñ-egiak" azaltzeko aldin dio edestiak Zaldibia'ri.

Gañera, "Gipuzko'ko Erkiari emandako Ageri ta Bakal Gutun, Zuzemen ta Berarizko Lagien Alkarbilketa" ta, orrezaz gaiñ, berak adierazi zuenez, "Iskillu-iztiko iztitxo" bat ere idatzi zituan. Arotzena'k dionez, 1575'garren urtean zandu zan.

XVII'gn. gizaldia Aranburu'tar Mikel jaunarena da, gizuren au gaingiroki aditaldu berri degularik. XVIII'gn. eunkian Samaniego abel-ipuidazle aundia bigitzen da. Leen esan dagunez, Tolosa'ri estuki lotutakotzat artu bearean gera, bertako endore edo auzapez ere izan zala.

Gizaldi onetan bizi izandu zan izarriztilari ta jaupari Sorregieta'tar Toma jauna, "Euzko Ezpañar Astea"ren egille.

ETXABURUA'tar ASIER

6.- KOREA



Korea izenak ainbat gauza gogoratzen daukuz gaur: USA'tarren eta komunisten arteko guda gogorra, paralelo 38 erdian dala zati bi egindako laterria... baiña ezagutu daigun zeatzago lurralde au.

Ogeta amazapi milloi lagun bizi dira Korean. Menditsua da eta ogeta amabost ugarte dauz inguruan Arrantzale asko Asia'tik Japon'erantza doan beso baten antza dauka erdi-ugarte onek.

Ipar-aldean ibai aundi bi dagoz Yalu eta Tumen eta oneik banatzen dabe Mongolia'tik.

Oso menditsua da eta 1/5 luraren zatia bakarrik landu leike. Eta gaiñera ez da lantzeko lur ona: aizeak,uriolak eta siketak izaten dira ugari. Ango bizimodua gatxa ta gogorra da.

Orain lau milla urte etorri ziran Asia'tik ara biztanle batzuk eta Txina'tarrak eta Japon'darrak beti izan dabez arerio edo arrapatzaille. Baiña biztanle etorri orreik izkuntza eta jakintza berezia euken.

Bertako kondaira batek diñoan lez, Huanung jainkoaren semea lurrera etorri zan eta otsotik emakume biututako neska eder bat aurkitu eban. Neska au zan Korea'ko lenengo Tangun erregearen ama. Eta 1122 urte K.a. bete ziranean amaitu zan onen erregetza.

Txina'tik jakintsu bat etorri zan Korea'ra bost milla ikaslegaz eta onek sortu eban bigarren errege-etxea eta Txina'ko oiturak sartu ebazan. Sortu ziran euren artean borroka batzuk, baiña Korea'ren kalte-egillerik aundienak inguruko erri indartsuak izan dira beti.

Txina'ren antzera Korea be mongolitarren menpera jausi zan eta Mantxuria'tarrak Txina'ren jabe egin ziranean, Korea'k be zergea ordaindu bear izan eutsen. Gero Japon'darrak indartu ziran et eurentzat artu eben Korea.

Munduko bigarren guda amaitu zanean, Korea'ko iparraldean komunistak jarri ziran agintari eta 1950n. urtean euren menpean ez egoan Korea'ko egoaldea menperatu nai izan eben komunistak Errusia'ren eta Txina'ren laguntzaz. Ia beste guda aundi bat sortu izan zan, baiña USA'k eta beste batzuk ONU'ren menpean gudariak bialdu ebezan eta azkenean zati bi egin zan Korea 38n. paralelo erdian zala.

Toki batzutan lantegi barriak sortu dira, etxegintza be ondo doa... pagodak eta antzeko torreak agiri dira eta ate aundiak dagoz lenagoko erri zarraren mugak non egozan jakiteko.

Bide bazterretan bordak eta auzoak agiri dira, etxeak teilla-ordez arroz-laztoa daukela, sukaldean ke-bideak kanpai-antzera eta orrelan goiko gelak berotzen dabez.

Lur-langilleak antxiñako golde zarrakaz ikusten dira, idi-buztarria tiraka dala. Arroza, garagarra,garia,frutak eta barazkiak dabez janari eta saltokietara eroaten dabez. Orretarako "gaeki" deritxon tresna bat dauke sorbalda gaiñean eroateko eta gauza asko eroaten dabez azokara olakoetan.

Janari baliotsua da "jinseng" deritxona: Zustrai da, eta zazpi urtean euki bear da eguzkirik ez euririk barik. Orretarako txabolak egiten dabez. Sustraiak legortu ezkeru eta lurrunean euki-ondoren, saltzeko txortak egiten dira eta aztunaren neurriko urrearen beste balio dabe. Sortaldean guztiak sinisten dabe "jinseng" onen senda-indarra.

Korea'ko itxasoan 500 000 arantzalek egiten dabe lan eta oneik ekarten dabe janaririk bearrezkoena. Itxas-algak dabez naien jateko.

Lurralde loretsua da: Kamelia, lila, potoiña, zitoriak eta lili-ubela. Antxiña'ko baso aundiak galtzen doaz, baiña ba-dagoz oraindiño baso aundi eta piztitsuak. Pizti nagusia katamotza (tigrea) da eta ba-dagoz leoi nabarrak,otsoak,idiak,oreiñak, artza, auntzak eta beste basapizti asko be.

Eiztariak arduratsu ibili bear dabe suge-gorri txikiak ez zapaltzeko.

Astegunetan zuriz jantzita ibiltzen dira koreatarrak, oiñetakoak narruzkoak baiña jantzirik ospetsuena zaldi-ulezko kapela luzea da. Au gizon ezkonduak baiño ez dabe erabiltzen, baiña amaika urteko mutiko ezkondu bat, gizona da eta berrogei urteko ezkongea, mutikotzat artzen dabe. Onek ule kiribildua erabilli bear dau sorbalda-gaiñean

Pipa luze bat daroe beti aldean eta etxean erretzen daben pipeak ba-dauko metro bat. Eta beste batek biztu bear izaten dau. Emakume guztiak dauke soiñeko bardiña, garritik orkatillera estaltzen dauan txamarra bat.

Iñor ilten danean sendiak denpora luzean erabiltzen dau lutua dan jantzi zuria

Jantziak ez dagoz josita, erantsita baiño eta zatituta garbitzen dabez gero barriro erantsiteko.

Dantzarako neskak oso jantzi politik daukez margo askodun zintakaz eta jai egunetan be olako jantzi apaiñak jazten dabez.

Euren edestian erlejiño asko izan dabez, txamanakaz asi,gero Buda, Konfuzio eta Sintoe onartu eta kristiñauak be eldu dira. Erlejiño guztiak itzi dabe euren ikutua Korea'n: eleizak, leku santuak, eta monastegi asko. Buda'ren irribarrea bide-ertzetan sarritan agertzen da. Bide ertzetan deabruaren aurkako age landuak egoten dira eta gaisoak sorbaldetan eskariak ipinten dautseez.

Joko-zaleak dira Koreatarrak: Ajedreza, damak, kartak... eta aize-kometak egiten be zaleak dira. Sendien arteko asarreak erabagiteko, arriketa-jokoa egiten dabe eta eun bat gizon ibiltzen dira arrika alkarren aurka, jentea begira dagoala.

Japondarrak agintari ziran aldian, trenbide ta bide-zabal asko egin ebezan eta industriagaz aberastu ebezan, baiña Koreatarrak iñoz ez dautsee japondarrai esker onik izan.


BBK

EUSKERAZALETA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txarteleak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

